



**NIK, ALEXANDER MARAÑON MUÑOZEK, ZUMAIA UDALEKO BEHIN
BEHINEKO IDAZKARIAK**

ZIURTATZEN DUT

2022ko abenduaren 22ko Ezohiko Tokiko Gobernu Batzordean Zumaian Torreaga 12.2 eremuaren urbanizazio proiektuari hasierako onarpena eman zela ondorengo botoekin (6 aldeko botoak -5 EH Bildu eta 1 ES-SV).

“ZUMAIAN TORREAGA 12.2 EREMUAREN URBANIZAZIO PROIEKTUARI HASIERAKO ONARPENA EMATEA”

LEHENENGOA.- Hasierako onarpena ematea ZUMAIAKO TORREAGA 12.2 EREMUAREN URBANIZAZIO PROIEKTUARI.

BIGARRENA.- Proiektua jendaurrean 20 egunez jarriko da GAOn argitaratzen den hurrengo egunetik zenbatzen hasita, egokitzat jotzen diren alegazioak eta iradokizunak aurkezteko. Interesdunen eskura dago, halaber, udal honen egoitza elektronikoan [helbidea: <https://www.zumaia.eus>].

HIRUGARRENA.- Proiektuari behin betiko onarpena eman aurretik, Udal arkitekto teknikoaren abenduaren 20ko txosteneko 3., 4. eta 6. puntuetan ezartzen diren baldintzak bete beharko dira, enpresa sustatzaileak urbanizatzeko konpromisoa ziurtatzeko bermearen aurkezpenarekin batera

LAUGARRENA.- Erabakiaren iragarkia GAOran bidali dadila eta interesdunei jakinarazi, Urbanizazio Proiektuak eragindako lurren jabeen barne.

Hala jasota gera dadin, eta dagozkion ondorioetarako, ziurtagiri hau eman dut,

Zumaian,

Idazkaria,

O.E. Alkatea

Dokumentu kod./Cod. Documento	2021HUUU0002-H22/00186
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAADKE6K.uk5j